



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**6**

**Naturarekin bat izan eta  
harremanetan sartzea**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 5. maila)

## TXANELA 5: SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

### “NATURAREKIN BAT IZAN ETA HARREMANETAN SARTZEA”

**Unitatearen haria eta helburua:** Unitate honetan, proiektuari aurre egitearekin batera, ikasturte honi dagokion naturaren zientzien arloko beste gai bati helduko diogu. Ez da lehen aldia Txanela proiektuan ekosistemen gaia lantzen duguna, beraz hainbat aurrezagutza izango dituztelakoan gaude. Bestalde, informazioaren trataerak ere leku garrantzitsua izango du unitate honetan burutu beharreko lan monografikoari begira, informazio iturrien azterketa, ulermen estrategien lanketa (ideia nagusi esplizitu eta inplizituak...) eta ekoizpenerako estrategiak (hautatzea, antolatzea, idaztea eta berrikustea) ere landuko dira.

**Sekuentzia tematikoaren laburpena:** Ekosistemen munduan murgilduko gara berriz ere. Oraingoan, gure langai nagusia bizidun zelulanitzak izango dira. 6. mailako azken unitatean lantzeko utzi baititugu bizidun zelulabakarrak.

#### **EKOSISTEMAK: Bizidunak eta bizigabeak elkarreraginean**

- Bizitzaren funtzioak
- Bizidunen sailkapena
- Zelulatik organismora
- Bizidunen arteko harremanak
- Elika-katea
- Desoreka ekologikoa

#### **BIZIDUN ZELULANITZAK: ONDDOAK**

#### **BIZIDUN ZELULANITZAK: LANDAREAK**

- Landareen nutrizioa
- Landareen sailkapena
- Landareak aztertzen
- Lorerik gabeko landareak
  - \*Lore-gabeen ugalketa
- Landare loredunak

#### **BIZIDUN ZELULANITZAK: ANIMALIAK**

- Animalien ezaugarriak
- Animalien sailkapena
- Animaliak ikertzen

**Proiektua:** Bizidunei buruzko lan monografikoa garatu. Ohiko informazio iturrien erabilpenaz gain interneten erabilera bultzatzen ere saiatuko gara.

**Urte osoko proiektuak:** Lehenengo gidan proposatzen genituen txokoekin jarraitu, edota egoki ikusiz gero, besteren bat martxan jar dezakezue.

**Irteerak:** Ingurune hurbileko bizidunak arakatzeko asmoz, hainbat irteera burutuko dira helburu jakinekin. Irakasleak ikusiko du zenbat irteera eta zer helbururekin egitea komeni den. Adibidez, liburuko sekuentzian landareen ikerketa aurkezten da lehenik eta ondoren animaliena. Nahi izanez gero gelan biak prestatu ondoren, hori baita garrantzizkoa, irteera berean biak burutu ditzakezue.

## IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartean garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak kompetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT kompetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Irakasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

### Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartean eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzailu, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 5

### IKASLEAREN LIBURUA - 6. UNITATE DIDAKTIKOA

#### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EQUIVA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	261
4		Aurre-ezagutzak: basoa eta itsasaldea	6	264
5		Proiektua: monografikoa	7	265
14		Bizidunen arteko harremanak: aurkezpena, taldeka, Gelako Blogan	16	274
17		Esamoldeak: animaliei buruz	18	276
21		<i>Bizkarroi parasitoak</i>	21	279
26		Informazio iturrien erabilera	27	285
30		Landareen nutrizioa	30	288
34		Irteera eta Esperimentuak	34	292
39		Landare izendegia	38	296
42		Animalien sailkapena	40	298
42		Animalia izendegia	40	298
49		Bertsoz	44	302
54		Proiektua gauzatu: editatu eta Gelako Blogan ikusgai	48	306
55		Artelanak: erakusketa Gelako Blogan	51	309

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Ahalik eta xehetasun gehien bilatzeko, eta hauek interpretatzen saiatzeko aginduarekin, tarte bat emango diegu ikasleei, binaka, azalari beha dezaten. Gero, talde elkarrizketa martxan jarriko dugu, landuko gairen inguruko ahalik eta aurreikuspen gehienak lortzeko asmotan. Horiek guztiak orri batean bilduko ditugu eta unitatea landu ahala egiaztatzen joango gara. Ea zenbatean asmatzen dugun. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarritu gaitezke (ikus 5.1. unitateko 6. jarduera), elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bidea emanez.

Hala ere, oraingoan, irakasleak oso galdera zehatzak egin beharrean, ikusi dutena nola interpretatzen duten esanaraztea izango da kontua.

- Zer adierazi nahi du izenburuak?
- Zer adierazten du marrazkiak? Eta marrazkiaren xehetasun bakoitzak? Zer erlazio dute xehetasunek izenburuarekin eta beste xehetasunekin?
- Zeri buruzkoa uste duzu izango dela unitate hau? Irudiari behatuz, zein alderdi uste duzue jorratuko duzuela? Justifikatu zuen erantzuna.

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4., 5. eta 6. or.*

Komikia irakurri aurretik izenburuari erreparatuko diogu:

- “Hau bai piztia-kuadrilla!” Zer adierazi nahi du? Zeri buruzkoa uste duzu izango dela komikia?

Ikasleak komikia bakarka irakurri eta behatu ostean, elkarrizketa sortuko dugu (ikus Tough-en funtzioak 5.1. unitateko gidan) talde handian, ondoren proposatzen dizkizuegun gaien inguruan hitz egiteko.

- Zein da komikiko gaia? Nola laburtuko zenuke hitz gutxitan zer den komikian gertatu dena?
- Komikiaren gaia izenburuarekin erlaziona ezazu. Ba al du zerikusirik?

Erreparatu diezaiegun orain komikiko xehetasunei.

- Nola adieraziko zenuke labur-labur zer den komikian gertatu dena?
- Erreparatu diezaiegun lehenengo bineta handi horri. Kuadrillako guztiak irakaslearen azalpen bera entzuten ari badira ere, euren pentsamenduen globoak ideia ezberdinak adierazten dituzte. Zergatik ote da hori? Zer adierazten du globoetako irudi bakoitzak? Irakasleak adierazitako zein ideiarekin uste duzu duela erlazioa globoetako ideia bakoitzak? Ideia horiek unitatean landuko diren hainbat gairi buruzko pistak ematen dituzte, ea asmatzen duzun zein izan daitezkeen.

- *Taldean edo bakarka egin behar ote dute lana gure kuadrillakoek? Zein rol uste duzu duela Intzak lan-talde horretan? Nola dakizu? Eta besteek? Talde lan horretan zein rol uste duzu izan daitekeela garrantzitsuagoa, Intzarena edo besteek betetzen dutena? Zergatik?*

- *Non eta zertan uste duzu arituko direla “ardi galduak” Uxue eta Maddi?*

Komikiaren azterketarekin etenik gabe jarraitzeko asmoz, eman iezaiezue ikasleei, 6. orrialdearen goiko aldeko galderak irakurtzeko eta talde txikietan horien inguruan hitz egiteko tartea. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileak hitz egindakoaren sintesia adieraz diezaiola talde handiari.

Komikian animaliekin zerikusia duten hainbat esamolde agertzen dira, hauen esanahia argitu ostean, bil itzazue horiek denak *erranak erran* txokorako, ondoren dituzuenekin batera. Horra hor unitatean zehar aurkituko dituzun batzuk eta beste hainbat:

- Kalean uso etxean otso.
- Zenbat eta gorago tximinoak ipurdia ageriago!
- Ardi-larruz estalitako otsoa!
- Zofoak beleari ipurbeltz!
- Hau pareta, karakola eta bareta!
- Arin eta ondo usoak hegan!
- Azkar eta asko astoak buztanpetik!
- Enarak goian hara eta hona, luzaroan eguraldi ona!
- Katua kanpoan, arratoiak festa!
- Oilo ibiltari, azerien janari!
- Otsoak jan ala artzainak jan, bildotsarentzat berdintsu!
- Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau!
- Bi bisiguk lau begi, sei ezkailuk hamabi!
- Astoaren putza!
- Ahuntzaren gauerdiko eztula!
- Antzarrak ferratzera!
- Babalorea!
- Txori- kaka!
- Ardi beltz!
- Txoriburu!
- Sator-zulo!
- Oilarra baino harroagoa!
- Zoaz pikotara!
- Zoaz txakurraren salara!

### **3. Esaera zaharrak eta esamoldeak: animaliak eta landareak barra-barra**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 147. or/10. lan-koadernoak, 56. or.*

Irakurgaietako esamoldeak irakurri eta lan-koadernoko jarduera osatzeko tartea emango diegu ikasleei. Ondoren, sei laguneko taldeetan antolatuta, egindakoaren berrikusketa egingo dute. Bukatzean, talde bakoitzak hiru esamolde ezberdin aukeratuko ditu (komikian azaldutakoak nahiz irakurgaietako orrialde honetakoak) eta horiek erabiltzeko egokiak diren egoerak asmatu eta talde handian dramatizatuko dituzte.

Ondorengoak, lan-koadernoko jardueren aukerako erantzunak dira:

- Kanean uso, etxean otso.
- Arin eta ondo usoak hegan.
- Hau pareta, karakola eta barea!
- Urrutiko intxaurrak hamalau, urreratu eta lau!
- Katua kanpoan, arratoiak festa.
- Bi bisiguk lau begi, sei ezkailuk hamabi.
- Ez zait batere gustatu egin didana eta antzarrak ferratzera bidali dut.
- Dena ondo egin duen bakarra denez, hor doa Jokin oilarra baino harroago.
- Gela honek satorzuloa dirudi, hain da iluna!
- Astoaren putza! Gaizki atera zait! Orain berriz egin beharko dut!
- Baina nola demontre otu zaizu horrelakorik egitea txoriburu hori!
- Ez egin barrerik, kontatzen ari naizena ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula.
- Ergel hutsa iruditzen zait, argiago esanda, babalorea!

#### **4. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Dagoeneko, komikiaren jarduerarekin batera, orrialde honetako Zuk zer dakizu atala egin dago. Beraz, orain, talde handian, aurreko urteetan ekosistemen inguruan ikasitakoaz gain, ekosistemak landu dituztenean egindako proiektu, irteera, ikerketa eta enparauei buruz hitz egiteko ere parada hartuko dugu. Ikasleei gaiari dagokionez euren oroimena freskatzeaz gain, irakasleak aukera ederra du hauen aurre-ezagutzeaz jabetzeko.

#### **5. Proiektuaren aurkezpena**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Arestian esan bezala, unitate honetan proposatutako proiektu nagusia, bizidun baten inguruko lan monografikoa burutzea litzateke. Horretaz gain ingurune fisiko eta soziala arakatzuz, zuzeneko behaketarako prozedurak ere aplikatuko ditugu.

Unitatean murgildu aurretik, lan monografikoari buruzko hainbat erabaki hartzeko lagungarri izango zaizue baita ere, *proiektua gauzatzen* irakurtzea, hau da, liburuko 48. , 49. eta 50. orrialdeei begiratua ematea.

#### **6. Ikasnorabidea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumenena arloari dagokion lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiezue ikasleei tarte bat, bakarka nahiz binaka, gainontzeko informazioari gainbegiratzeko. Gogora ezazue unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, atal bakoitzean hainbat arlotan lantzen ari zareten edukiaz jabetzeko.

Ez ahaztu komenigarria dela ikasnorabidea DIN A-3an koloretan fotokopiatzea, plastifikatzea eta begi bistan izatea.

## **7. Txoko zuria**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Behin ikasnorabidea aztertu eta nahi izanez gero unitate osoa gainbegiratu ondoren, txoko zuria hornitzen has gaitezke. Hainbat informazio liburu ekar daitezke ikasnorabidean oinarrituta, baita prentsa artikulak eta ikus-entzunezko dokumentalak ere.

## **8. Ekosistemak: bizidunak eta bizigabeak elkarreraginean**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Atal berria hasiera goazela jakinik, tarte bat hartuko dugu ikasnorabidera joan-etorria egiteko, atal honetan egingo denaren berri izan dezaten.

Unitate honetan informazioaren trataerak garrantzi handia hartuko du, ikasleek informazio iturriak arakatzeko ikasi, euren lanerako behar duten informazioa bilatu, hautatu eta egokitzen ere ikasi behar baitute. Prozesuaren baitan eman beharreko urratsak eta estrategiak era esplizituan eta konpartituan landuko ditugu, bideak adieraziz, baliabide ezberdinak ezagutzeko eta egokienak hautatuz, aurkituko dituzten zailtasunei aurre egiten lagunduz...

Jarduera honetan, gaiarekin zerikusi duten bi kontzeptu argitzeko eta ezagutzeko aurkezten zaizkigun testuak erabiliko ditugu informazioaren trataerako prozesu batzuk ezagutzeko:

- Informazio iturriek testu mota ezberdinak aurkezten dituzte, horretaz jabetuko gara.
- Hautaketa lana egoki egiteko ezinbestekoa da testu baten edukia aztertzea.

Sekuentzia hau guztia taldean egingo dugu eta era esplizituan, irakaslearen azalpenek lagunduta.

## **9. Ideia nagusi esplizitua**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 10. lan-koaderno 57. eta 58. or.*

Hainbat testutan, ikasleek, behar duten informazioa era esplizituan aurkituko dute, bestetan hainbatetan, berriz, era implizituan. Informazio mota bien bilaketan eta identifikazioan trebatu behar ditugu ikasleak, oraingoan, esplizituari ekinez.

Eman iezaiezue tarte bat, bakarka, lan-koadernoko jardueraren osa dezaten, ondoren, talde handian berrikus ezazue, berrikusketa jardueraren zuzenketa gisa soilik hartu beharrean, teknika edo estrategia jakin baten ulermen eta barneratze prozesu bezala ulerturik.



## 10. Bizitzaren funtzioak

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or./10. lan-koaderno 59. or.*

Binaka ikasleak ekosistemei buruzko informazio irakurri, eta jardueran egiten zaizkien galderak erantzuten saiatuko dira. Bikoteak irakasleak egingo ditu, oraingoan, antzeko ezaugarriak (erritmo, ulermen maila...) dituzten ikasleak elkarrekin jarriaz.

Ondoren, eta talde handian, *bizitzaren funtzioak* testua irakurri eta argitzeari ekingo diogu. Irakasleak, testua egoki uler dezaten, egoki deritzon argibide eta adibide guztiekin hornituko du. Behin testua ulertuta, ikasleek aurreko unitatean eskemaren inguruan ikasitako praktikan jartzeko aukera izango dute. Bakarka, testu horretako informazio nagusia eskema bidez sintetizatu beharko baitute. Bukatzean, talde handian, eskema arbelean berreraikitzeari ekingo diogu, egindako guztia justifikatuz, eskema motaren eta edukiaren aukeraketa. Alegia, aukeraketa eta baita baztertu dena ere zergatik baztertu den.

Elikadura- edo nutrizio-funtzioa

Bizitzaren funtzioak

Erlazio-funtzioa

Ugalketa-funtzioa

Horren ostean, ikasleek lan-koadernoko jarduera osatuko dute bakarka.

## 11. Olerkiak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgai 5, 148. eta 149. or.*

Irakurgaietan lau egileri dagozkien bost olerki aurkituko dituzue. Guztiek dute zerikusia bizidunekin. Bakarka irakurri ondoren, olerkien interpretazioa landuko dugu talde handian (metaforak “penak elefanteak dira” eta konparazioak “Iduri du xori bat” beharazi). Bukatzeko, binaka jarrita ozeneko irakurketan/deklamazioan trebatzeko utziko diegu tarte bat.

## 12. Bizidunen sailkapena

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Talde handian jarduerako informazio irakurri eta argituko dugu. Gero, ikasleek euren koadernoan, adierazten zaien informazioa bildu eta kopiatuko dute. Ikasleek ikasteko den zerbait koadernoan kopiatzen duten bakoitzean, eman tarte bat hori ikasteko eta baita lagunen batekin horri buruz hitz egiteko edota harekin ikasten trebatzeko.

### **13. Zelulatik organismora, ahozko azalpena**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. eta 15. or.*

Talde handian eta irakaslearen azalpenak tarteko, testua irakurri eta argitzeari ekingo diogu. Ondoren, liburuak adierazi bezala, liburuko irudiak oinarri, ikasleek informazio hori ahoz lagunari adierazi beharko diote, beraz, tarte batean hura prestatzeari ekingo diote, ondoren, lagunari adierazteko. Bikoteko lan honetan, entzuleak ez du rol pasiboa izango, alegia, bestearen ahozko azalpena aztertu eta hura hobetzeko lagunari zer egin dezakeen adierazi beharko baitio.

### **14. Bizidunen arteko harremanak: Ideia nagusiak eta xehetasunak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17.or./10. lan-koadernoa, 60. orrialdetik 64.era*

Orrialde hauetako bi globoak, sarrerako informazioa, eskematxoa, eta jarduerak agintzen duena irakurriko dugu taldean, eta hark esan bezala, testua ulertzeko hainbat hitzen esanahia aldeztatik ezagutzeko komeni denez, lehenik eta behin, lan-koadernoko jarduera osatuko dute ikasleek hirunaka (aukerako erantzunak idatzi baino lehen euren artean eztabaidatu eta justifikatu ditzaten). Bukatzean, talde handian testua irakurtzeari ekingo diogu.

Lan-koadernoko jarduerak, testuaren edukiaz jabetzen laguntzeaz gain, informazioa nagusia, eta bigarren mailakoa dena bereizten ere lagunduko digu, hau da, ideia nagusiak eta xehetasunak bereizten. Eta hori da, hain zuzen ere, ikasleek egin beharko dutena bi zatitan. Lehenik, liburuko 16. orrialdeko testuarekin lotura duten 61. eta 62. orrialdeak osatu eta berrikusi, eta ondoren, gauza bera liburuko 17. orrialdea eta lan-koadernoko, 63. eta 64. orrialdeekin.

Jarduera honekin, testuaren edukiaz jabetzeaz gain, ideia nagusi inplizitua zer den ere ulertuko dute, ideia nagusiak ondorioztatzen trebatu ahala.

### **15. Irakurgaiak: bizidunen arteko harremanak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 150. eta 151. or.*

Bakarka lehenik, eta talde handian elkarrizketa sortuaz ondoren, irakurgaietako bizidunen arteko harremanak testua irakurtzeari ekingo diogu, bizidunen arteko harremanei buruzko informazio gehiago eskuratzeko asmoz.

## 16. Kukuarenak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or./Irakurgaiak 5, 152. orrialdeak 156.era*

Gure inguruan hain ezaguna dugun kukuari buruzko aurre-ezagutzak aktibatu ostean, ondorengo jardura egingo dugu. Irakurgaietako testuen edukiari erreparatu gabe, formari erreparatu eta galdera hauek luzatuko dizkiegu ikasleei:

- *Zein testu mota da hauetako bakoitza?* Erreportajea, hiztegi artikulua, olerkia, hiztegi etnografikoko sarrera, jolasa eta ipuina.
- *Zein informazio mota adierazten dute?*
- *Zein izango da testu hauetako bakoitzaren gaia?*

Testuak irakurri ostean, edukiaren inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

Gogoan izan mota honetako testuekin hornituko dutela euren monografikoa, beraz, ideiak hartzeko ere balioko digute testu hauek.

## 17. Animaliak tarteko, esaera zaharrak eta esamoldeak

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

*Erranak erran* hornitu eta gure ahozko hizkuntza aberasteko asmoz, animaliekin zerikusia duten esamoldeak bil ditzatela ikasleek, talde txikitan. Hauen esanahia argitu eta barneratzeko asmoz, batzuk aukeratu eta hainbat egoera dramatizatzeari ere ekingo diogu.

Hor behekoak, kukuarekin zerikusia duten beste esamolde batzuk dira.

- Beste kuku batek soinua joko balu, beste era batera dantzatuko zenuke!
- Lanean ari denari, kukuak jotzen dio.
- Erramuetan kuku, sanpedrotan mutu.
- Gaixoak kukuarekin batera altxatzen dira.
- Kuku kantatzen, euri ta eguzki.
- Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan.
- Kukuak txantxangorria inude.
- Kukuak uste ez zuen tokitik jo dio.
- Kukuk besteen ohantzean arroltzeak egiten.
- Maiatzean kukuak kuku, diruz banitu bi zaku.

Bildutako esamoldeak aprobeztatuz elkartasun jolasa praktikan jarriko dugu. Horretarako betiko prozedura jarraituz:

- Gogora ekarri zein den jolas honen helburua.
- Jolasa argitu eta jolasteari ekin.
- Jolas ostean esperientziari buruz hitz egiteko elkarrizketa sortu.

## **18. Lagunartean: Gizakien harremanak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.*

Gizakiok askotariko harremanak ditugu, berdinen artean (gizakion artekoa) nahiz desberdinen artean (naturarekin orokorrean, animaliekin nahiz landareekin dugun harremana...). Jarduera honek ikasleei horren inguruan hausnartzeko parada emango die, bizidunen arteko harremanen kontzientzia hartzeko eta bide batez aurretik landutako hainbat kontzepturen esanahia barneratzeko (gregarismoa, lehiaketa, sozietatea...). Ez dute zertan buruz ikasi behar kontzeptu horien definizioa. Beraz, eman iezaiezue tarte bat orrialde horretan adierazten dena irakurtzeko, argazkiak behatzeko eta horren inguruan hausnartzeko. Gero, sor ezazue elkarrizketa hausnartutakoa elkarren artean konpartitzeko.

## **19. Txisteak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 157. eta 158. or.*

Ikasleek bakarka, irakurgaietako txisteak irakurriko dituzte. Ondoren, txisteen saioa martxan jarri dezakezue, lantzen ari zareten gaiarekin (bizidunak eta hauen arteko harremanak) zerikusia duen edozein txiste kontatzen eta entzuten gozatzeko.

## **20. Lagun artean: kuadrillako harremanak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.*

Berdinen arteko harremanen atalean, adin honetan hain garrantzitsua den kuadrilla barruko harremanei erreparatzeko, eta horien kontzientzia hartzeko aukera emango die ikasleei orrialde honetako jarduerak. Talde-harremanen kontzientzia hartzeak taldeko arazoei aurrez aurre begiratzen lagunduko die, izaera, balore eta abarren aniztasunaz jabetzen eta hauek baloratzen, bere alde on eta txarrekin. Era berean, mota honetako sentipenak gelakoekin konpartitzeak, talde kohesioa indartzen lagunduko du, taldeko kide sentiarazten.

Beraz, esandakoa egiteko, orrialde honetako ariketa bakoitza bakarka irakurri eta horren inguruan hausnartu ostean, talde elkarrizketa sortuko dugu. Komenigarria litzateke jarduera honetan proposatzen diren hiru ariketa horiek egin aurretik, irakasleak, *lagun artean: kuadrillako harremanak* sekuentzia honi dagozkion ondorengo jarduera guztiak irakurtzea, egoki iruditzen zaizkionak, egokien iruditzen zaion moduan bideratu ditzan.

## **Harremanekin zerikusia duten esaldiak iradokitzen dutena azaleratzen**

Liburuko jarduerak bukatu ostean, talde handian, irakasleak ondorengo esaldi bakoitza banan-banan irakurriko du eta bakoitzaren ostean, nahi duen ikasleak, esaldi horrek burura dakarkiona esateko hitza hartu dezake.

- *Hitz edo esaldi batzuk irakurriko ditut banaka eta bakoitzaren ostean, esaldi horrek burura dakarkizuen botatzeko tarte bat utziko dugu. Adibidez, adiskidetasuna. Zer iradokitzen du hitz honek zuentzat?*

- *Lagun minen arteko harremana.*

- *Leire nire laguna datorkit burura, adiskide oso ona dut.*

- *Aspaldion gure artean ez dagoena da adiskidetasuna.*

- ...

- *Errespetua*

- *Laguntza*

- *Lagunak oso garrantzitsuak dira beraiek eta ni zoriontsu izateko.*

- *Besteek ni tratatzea gustatuko litzaidakeen bezala tratatu behar ditut besteak.*

- *Besteak nik ikusten ditudan bezalakoak izango dira. Nire jokaeraren arabera portatuko dira.*

- *Besteek errespetu eta balora nazaten lortu behar dut.*

### **Lagunarteko soziograma (irakaslearentzat informazioa)**

Gelako ikasleen arteko eguneroko harremanak oso garrantzitsuak dira, ikasleek, giro egoki eta atsegin batean eguneroko jardueraz goza dezaten (lana, jolasa, elkarriketak...) Irakasleak, gelako harreman horien berri izateko (horiek lantzeko eta indartzeko asmoz), bada aproposa den jarduera bat: Lagun arteko soziograma.

Eman ikasle bakoitzari paper batean idatzita hor behean duzun zerrendatxoa edo antzeko bat (galdera gehiagorekin), bakarka, eta sekretupean osa dezaten. Galdera bi nahikoa lirerateke nor aukeratu eta baztertzen duten jakiteko, zenbat eta galdera gehiago egin orduan eta informazio gehiago eskura dezakezue. Izan ere, lagun bat aukeratu dezakete bihotzeko sekretua kontatzeko, baina agian, lanerako beste bat, edo agian lagun bera aukeratuko da gauza on guztietarako, bere konpainiak edozein gauzetarako atsegina eta lasaitasuna ematen duelako. Irakasle, lortu nahi duzun informazioaren araberrako galderak egin itzazu, mota eta kopuruari dagokionez. Edozelan ere, ez ahaztu, galdera horiek nor aukeratu eta nor ez aukeratu (baztertu) ideiapen formulatu behar dituzula. Erantzunak jaso ostean, irakasle, jarri itzazu gelako lagunaren izenak borobil bat osatzen. Gero, har itzazu koloretako bi errotuladore, berdea eta gorria adibidez. Berdeak aukeratuaren seinale izan daiteke eta gorria baztertuarena adieraziko du. Beraz, Aitorrek, Jon aukeratzen badu sekretua kontatzeko, Aitorren izenetik Jonen izenera doan gezi berdea margotuko duzu. Soziograma honek, era bisual eta garbi batean, gelako harremanei buruzko informazioa adieraziko dizu.

Gelako nor aukeratuko zenuke...

...sekretu bat kontatzeko?

...laguntza eskatzeko?

...zeini eskainiko zenioke zure laguntza gustu handiz?

...zeini ez zenioke eskainiko laguntzarik?

...zein ez zenuke aukeratuko sekretu bat kontatzeko?

...zein ez zenuke aukeratuko laguntza eskatzeko?

Gogoan hartu, informazio hau irakaslerentzat dela eta publiko egiteak kalte egin diezaiokeela hainbat ikasleri.

## **Elkartasuna, taldean lan egiteko eratako bat**

Dagoeneko, lehenengo mailan hasi eta bultzatu dugun harreman motatako bat elkartasuna da, jolas bidez, talde-lan gisa... Momentu egokia litzateke hau, urte hauetan egindakoari, perspektiba honetatik begiratutxo bat emateko, haren alderdiak indartzeko eta, bide batez, jolasen batekin praktikan jartzeko ere. Jarraian dituzue ideia batzuk, liburuko 20. eta 21. orrialdean proposatutako elkarrizketarako:

Elkarlanean arituz, kide bakoitzaren trebetasunak eta mugak osatu eta aberastu daitezke. Beste kideekin batera lan egiteak, helburu bakar eta bera lortzeko talde kohesioa indartu egiten du, eta esperientzia beraren inguruko bizipenak konpartitzeak, kideen arteko harremana hobetu. Taldekide guztien ekarpena baliozkoa eta beharrezkoa da, bakoitzak bere ekarpena ahal duen neurrian eta erritmoan egingo du, baina ekarpen horien guztien batura izango da, talde osoaren lorpena ahalbidetuko duena.

Elkartasunez jolastean hainbat aldiz azpimarratzen ditugun alderdiei ere erreparatu diezaiekezue. Ondoren dituzue ideia batzuk. Ideia horiek eziezazkiezue ikasleei adierazi idatzita dauden bezala, egokitu eta molda itzazue zuen errealitatera (egindako lana, ikasleen ezaugarriak...). Hona ideiak:

- Parte hartzea*: denok gara taldekide eta gure ekarpena oso garrantzitsua da taldearen baitan.
- *Aniztasuna onartzea*: ezberdinak gara, eta errespetatuko dugu hori. Lan estiloa, erritmoa, gaitasunak, nortasuna, iritziak. Besteak onartu eta balioetsi behar dira. Ezberdinak izateak aberastu dezake gure lana, bakoitzaren alderdi edo gaitasunetatik egokienak hartuz eta garatuz gero, akatsetatik (norberak zein besteek egindakoetatik ere) asko ikasi daiteke, sarritan lorpenetatik baino gehiago.
- Elkartasuna*: elkarri lagunduko diogu, talde bezala jokatu, gure esfortzua batu eta gure trebeziak konbinatu, bakoitzaren alderdi onenei etekina aterez.
- Dibertsioa*. Era adiskidetsuan lan egingo dugu, ondo pasatuz.

Esperientziak adierazi digun bezala, mota honetako jolas zein lanetan elkarrekintza eta harremanen bidez asko ikasten da.

- Ardurak eta erantzukizuna*: talde osoak ondo funtzionatzeko zuk zure ardurak betetzea oso garrantzitsua da. Bakoitzaren jarrera arduratsuak laguntzen du taldeko giroa hobetzen eta lana ondo betetzen.
- Entzuketara aktiboa*: entzun, bestearen tokian jartzen saiatu, perspektiba horretatik egoera hausnartu...
- Erabakiak hartu eta ekin lanari*: alderdi ezberdinen inguruan hausnartu ostean erabakiak hartzea errazagoa suertatzen da, lanari ekiteko bideak errazago irekitzen dira.
- Esperientzien kontaketa*: jolas eta talde-lan bakoitzaren osteko elkarrizketak, esperientziak konpartitu eta emaitzak ebaluatzeko parada ematen digute, egindakoaren balorazio egiteko (kritika eraikitzailea) ondo eta gaizki egindakoetatik ikasteko, zuzenketak eta aldaketak egiteko, ondo egindakoak kontuan hartzeko... Balorazio horretan kontuan hartu behar dira, norberaren lana zein talde-lana.

## **Elkartasun jolasa**

Elkartasunaren garrantziaz jabetzeko jolas batzuk egitea proposatzen dizuegu. Ondoren dituzue, urte hauetan (1. mailatik 4. maila artekoak daude, bosgarrenean egindakoak ere gogora ekarri eta txerta ditzakezue zerrendan) ikasleek jolastutako elkartasun jolasak nagusiki lantzen duten edukiaren arabera sailkatuta eta zerrendatuta.

Sailkapena ez da erabatekoa, zenbaitetan, eduki bat baino gehiago lantzen baitira jolas hauetan. Aukera ezazue, taldean, zeinetara jolastu nahi duzuen eta ekin iezaiozue, elkarrizketa bidez hitz egindako alderdi horiek praktikan aplikatzeari. Jolas on!

- AURKEZPENA
  - 1.1 /3.1. Nire aurkezpen txartela
  
- TALDE KOHESIOA-KOOPERAZIOA
  - 1.1 Hau nire laguna da
  - 1.1/3.1 Besarkada musikala
  - 2.1 Gure lagunak gauza on asko ditu
  - 1.8 Lagunen alde onak
  - 3.4 Aurkien gorpila
  - 3.6 Ehunzangoa
  
- HITZIK GABEKO ELKARTASUNA
  - 1.4 Ispilua
  - 1.4 Profilen jolasa
  - 2.5/3.1 Txikleka
  - 2.6 Nor-Zerekin?
  - 2.6 Telegrama
  
- ELKARTASUNA
  - 1.3 Gorpila
  - 1.5 Globoen jolasa
  - 1.5 Errelebo lasterketa
  - 2.2 Kanpaiak
  - 2.5 Aulkiak
  - 2.7 Sugea
  - 3.3 Bat-bateko ikusmen-oroimena (estrategiak)
  - 3.4 Nien piztia
  - 4.1 Sardinak lata barruan!
  - 4.2 Sorginaren jolasa
  
- LAGUNTZA HARTU ETA EMAN
  - 1.8 Stop
  - 2.3/4.4 Hareazko poltsak
  - 2.4 Planetak jausteko zorian
  - 3.3 Besarkadak
  - 3.7 Hartu eta eman
  - 4.5 Ura ez da jolasean ibiltzeko!
  
- HITZEN BIDEZKO KOMUNIKAZIOA
  - 2.2 Berri berritua
  - 2.1 Txominek dio... Marik dio!
  - 3.2 Deskribapenak
  - 3.5 Aulkiak aldatzen
  - 4.1 Altxor bila (iparroratzarekin)
  - 4.3 Gihar nahiz hezurren izenekin jolasten
  - 4.5 Hitzak asmatzen

- KONFIDANTZA
  - 1.2 Dinosaurio amaren bila
  - 1.6 Animalien bikotea
  - 1.7 Txio-txio txoritxoak
  - 2.3 Manta magikoa
  - 2.8 Trena
  - 3.1 Itsu-mutsuka
  - 4.6 Txakur ama eta txakurkumeak
  
- KOOPERAZIO DRAMATIKOA
  - 1.2 Dinosaurioak dramatizatzen
  - 1.6 Zirkura goaz
  
- IRUDIMENA/SORMENA PIZTEN
  - 1.3 Bihur dezakegu...
  - 2.8 Zertarako eta...
  - 3.2 Hitz kateak
  - 4.3 Zirkuluak sormenaren iturri
  - 4.4 Altabizkarko kantua elkertasunez marrazten

## 21. Kanta-kantari

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or./CDa, 30. pista*

Ikasleek, bakarka, kanta-kantariako “Bizkarroi parasitoak” abestia irakurri ostean elkarrizketa sortuko dugu gaiaren inguruan hitz egiteko. Ondoren, musikarekin batera hura abestuz gozatzeari eta ikasteari ekingo diogu. Abesti honek, besteak beste, atzetik datorren atalari, *bizidunen arteko elikadura-harremanari*, sarrera ematea du helburu.

## 22. Ba al zenekien?

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 159. or./10. lan-koaderno, 71. eta 72.or.*

Unitate hasieran, ikasleak ideia nagusi esplizitua bilatzen trebatu ziren, orain inplizituaren bilaketan trebatzeko jarduera dugu hau. Aurten hasi eta seigarren mailan ere izango dute aukera honen lanketa indartzeko.

Tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako *Ba al zenekien?* Irakurri eta lan-koadernoko jarduera osa dezaten.

Jarduera honetan, aukera egokia zein den, eta zergatik adieraztea bezain garrantzitsua da, baztertutako aukerak zergatik baztertu ditugun adieraztea. Esan iezaiezue ikasleei hau. Jarduera horrela planteatuta dago, estrategia gisa, ikasleek irakurketa arretatsua egin dezaten eta testua hobeto uler dezaten. Beraz, eska iezaiezue ikasleei justifikazio guztiak.

Aukera hau aprobetxatu nahiko genuke, irakasleei gogorarazteko, edozein dela ere egiten ari zireten jarduera, oso garrantzitsua dela ikasleari adieraztea bide egokiak baina baita okerrak ere, jakin dezan zergatik dagoen zerbait ondo eta uler dezan zergatik dagoen gaizki. Alegia, okerreireparatzeak sarritan, bide zuzenen zergatia hobeto ulertzen laguntzen duela.



### **23. Elika-katea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or./10. lan-koadernoan, 65. eta 66. or.*

Bizidunen arteko elikadura-harremana jarduerari dagokion informazio ez da erabat berria gure ikasleentzako, lehendik ere elika-katearen inguruan lana eginga baitute. Beraz, aurrezagutzak aktibatuko ditugu, elika-katearen inguruan dakitena testuko informazioarekin batera freskatzeko eta horren gainean ezagutza berria eraiki dezaten, alegia, zer diren maila trofikoak, nortzuk osatzen duten mailatako bakoitza eta zein harreman mota duten euren artean.

Jarduera hau talde handian egin dezakezue. Jarduera hau osatzera eta indartzera datoz, batetik, lan-koadernoko jarduera eta baita liburuan bertan, ondoren duzuen ingeleseko proposamena ere.

Lan-koadernoari dagokionez, ikasleek binaka, jarduera osatzeari ekingo diote, gero, talde handian berrikusiko dugu. Bikoteak, irakasleak osatuko ditu, ezberdinen arteko bikoteak izan daitezela (tutorizatuak), alegia, elkarren artean osatuko dute jarduera. Erraztasunez osatzeko gai den ikasleak (tutore rola hartuaz) besteari lagunduko dio, arreta zertan jarri behar duen pistak emanez eta beharrezko diren azalpenak luzatuz. Bikote hauek bi helbururekin egingo ditugu, tutore rola duenak besteari jarduera ulertarazteko saiakera horretan, bere ulermen eta adierazpen maila hobetuko du, bestearen tokian jartzen saiatuko da eta besteak jarduera ulertu eta egoki bete dezan estrategiak bilatu eta aplikatzen trebatuko da. Tutorizatuak ere, jarduera ulertu eta barneratuko du, besteak emandako laguntzaz baliatuz eta era berean, mota honetako jarduera batean jarraitu beharreko urratsak eta aplikatu beharreko estrategiak ulertzen eta barneratzen joateko aukera ere izango du.

Bukatzean jarduera berrikusi eta esperientziaz hitz egin dezakezue, zer moduz joan den, baliagarria izan zaigun, bakoitzak bere bizipenaren inguruan hitz egin dezan...

### **24. Ingelesa**

*Lan egiteko era:*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. eta 24. or.*

### **25. Hitz-errota: Desoreka ekologikoa (berriak) eta Esazu horrela!**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. eta 26. or./Irakurgaiak 160. orrialdetik 162.era/10. lan-koadernoan, 67. or.*

Sekuentzia luzea duzue hurrengo hau, beraz, aspergarria eta astunegia gerta ez dakien ikasleei, irakasle, lehenik eta behin gainbegiratu eta ondoren, egokien irizten diozun eran bideratu ezazu.

Jarduera honen bidez, talde elkarrizketa eginez oreka ekologikoa eta desoreka ekologikoaren ideiarra hurbilduko gara, eta ekosistemen desoreka norik eta zerk sortzen duen ikusi. Horrez gain, gutariko bakoitza naturaren zati garela konturatuko gara, izaki guztiak elkarren dependentzian eta eraginean gaudela eta gutariko bakoitzaren jokabideak eta ekintzak eragina eta isla duela ingurumenean. Irakurgaiak liburuko bi irakurgaiak lagun diezagukete horren kontzientzia hartzen. Beraz, gure ingurune natural eta soziala zaintzen eta errespetatzen ikasi behar dugu.

Hitz-errotari dagokionez, ikasleek gaiarekin erlazionatutako berri bat aukeratu eta horrekiko iritzia adierazi behar dute. Lan hau nola egin jakiteko talde handian, irakurgaietako bi irakurgaiez baliatuz, liburuko urratsak banan-banan landuko ditugu: zailtasunak agerian utziaz, hauei aurre egiteko estrategiak landuz, egokiak diren esaldiak erabiliz... honetan guztian irakaslearen azalpenez gain lan-koadernoak ere lagunduko digu. Aurrerago eta txandaka (egun bakoitzean hiru ikaslek adibidez) ikasleek bakarka burutu beharko dute lana. Momentu hori litzateke egokia hainbat irizpide jakin behatzeko eta ebaluatzeko.

Aurten hainbat iritzi errota egin dituzue hauetariko bakoitzean alderdi jakin bat bereziki landuz. Hitz-errota hau aurtengo azkena denez, hizkuntzako etapa bukaerako irizpide jakin batzuk behatzeko aukera aprobetxatzea proposatzen dizuegu.

- Lehenengoa: 3. helburuari dagokion 3.4. irizpidea, elkarrizketaren oinarrizko arau sozio- komunikatiboak behar bezala aplikatzen ditu (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).
- Bigarrena: 4. helburuari dagokion 4.3. irizpidea, ahozko aurkezpen sinpleetan era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu bere ideiak.
- Hirugarrena: 5. helburuari dagozkion irizpideren bat, testu sinpleen ahozko aurkezpen argi eta egituratuak egitea, zeregin hori aurretik planifikatuz eta hainbat aurkezpen teknika erabiliz.

Gogoan izan ebaluatzeko asmoa duzuen alderdiak aldeztu aurretik ondo eta egoki landuta izan behar dituela ikasleak, alegia, eskakizun mailak urtean zehar landutakoarekin bat etorri behar duela.

Prensa txokoa ondo hornitua izatea oso garrantzitsua da jarduera hau burutzeko baliabidea prentsako testuak baitira.

Apoaren irakurgaiari dagokionez, irakurgaia taldean irakurtzen ari garen bitartean, aprobetxa ezazue aukera, paragrafo bakoitzean esaten denaren inguruko ideia nagusia ahoz adierazteko, ideia nagusiaren bilaketa lantzeko oso testu aproposa baita.

Lan-koadernoari dagokionez, iritzia modu egoki eta zuzenean adierazteko esaldi jakin batzuen erabileran trebatzeko ariketak dituzue *Esazu horrela* jardueran. Ikasleek bakarka erraz osatzeko modukoak diren ariketa hauen asmo nagusia, iritzi errotan, edo euren eguneroko bizitzan hauen erabilpena bultzatzea baita.

## 26. Liburu artean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakaslearen liburua, 27. or.*

Lan monografikoa egiteko, informazioa bilatu beharko dugu iturri ezberdinetan, hori dela eta zuen liburutegiko liburuak harrotzea proposatzen dizuegu. Lehenik eta behin, talde handian irakur ezazue orrialde horretako jarduerak proposatzen duena eta ondoren ekin iezaiozue esandakoari.

Taldean, ikastolako liburutegira joan eta bertako informazio liburuak ezagutu, aztertu, hauen erabilerari buruzko liburutegiko oinarrizko arau eta urratsak ikasi eta aztergai dugun gaiari buruzko liburuak aurkitu eta gelara eramango ditugu, horien informazioaz baliatu beharko baitugu proiektua osatzeko. Aukera polita izan daiteke hau, gelan bertan, txoko zurian ditugun materialak ere berriro aztertzeke.

Orrialde horretan argazki bidez adierazitako informazio iturri ezberdinen inguruan ere hitz egin ezazue eta eskuratu itzazue ahal dituzuenak.

## 27. DVDA: animaliak

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: DVDA*

Txanelako DVDAz gain, eskura itzazue animalien bizitzari buruzko DVDAk eta informazio iturri gisa erabil itzazue. Bestalde, dokumental guztiek dute gidoia eta hura azter dezakezue. Alegia, zeri buruzkoa den argitu, zer atal edo zati nagusi dituen, atal bakoitzean adierazten den ideia nagusia zein den...

## 28. Liburu artean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Honez gero, gela informazio iturri ugari izango dugu, orain, hauen erabileraren inguruko azalpen batzuk luzatzea komeniko litzateke.

Paperezko euskarrria duten eskuliburuaren erabilpena, liburuak berak proposatzen dien jarduerak bideratzen du, ikasleak bere lanerako behar duen informazioa azkarrago lortzeko zer egin behar duen adierazten baitu.

Ikus-entzunezko baliabide diren informazio iturriei dagokienez, irakasle, hartu ezazu tarte bat, taldean, gelara ekarritako dokumentalen bat ikusteko eta informazio bilaketari dagokionez iturri horren erabilpenaren inguruko aholku batzuk emateko, eta egizu gauza bera interneten bizidun zehatz baten bilaketa bideratuz.

## 29. Bizidun zelulanitzak: Onddoak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.*

Bizidun zelulanitzen azterketa hastera goazen honetan, lehenik eta behin, goian eskuinean dagoen sailkapena aztertuko dugu. Orain arte landareez ere animaliez bakarrik jardun dugu, baina oraingoan behar bezalako sailkapenari helduko diogu. Onddoak dira lehen atala, eta liburuan jartzen ez badu ere, onddoei buruzko aurreiritziak eta aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Garbi utziko dugu, onddoak ez direla ez animalia eta ez landare, zelulanitzen barruko hirugarren erreinua baizik. Seigarren mailan ikusiko ditugu zelulabakarrak eta orduan aipatuko ditugu bizidunen beste bi taldeak.

14. orrialdean ikusi dugun bezala, eskema osotasunean, horra hau da:

	Zelulabakarrak	Moneroak
Bizidunak		Protoktistoak
	Zelulanitzak	Onddoak (batzuk zelulabakarrak ere izan daitezke) Landareak Animaliak

Agindua irakurri eta egin beharreko lana argitu ondoren (testua eta azpi-gaiak eta ideia nagusia), testua irakurri eta behatuko dute lehenik bakarka. Talde handian ideia guztiak ongi argitu eta irakurritakoaren laburpena eskemaren azpian bere koadernoan bilduko dute.

### **30. Bizidun zelulanitzak: Landareak. Landareen nutrizioa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or./Irakurgaiak 163. or.*

Orrialde hauek patxadan landuko ditugu bertan plazaratzen den kontzeptua garrantzitsua bezain konplexua baita. Eskemari berriro so egin eta NUTRIZIO hitzari jarriko diogu arreta.

Landareen kasuan, gizakiongan bezala, nutrizio funtzioa ez da elikagaiak hartzea mugatzen. Funtzio hau konplexua da eta gutxienez, arnastu, elikagaiak eskuratu, horiek eraldatu, garraiatu eta hondakinak kanporatu egin behar dira. Liburuan, horiek guztiak dituzue deskribatuta. Gogoan eduki 6. mailako 3. gaian, giza gorputzaren aparatuak landuko ditugula eta kasu honetan baita ere, digestio aparatuaz gain, arnas aparatuak, odol-zirkulazioak eta iraitz-aparatuak gizakion nutrizioarekin duten ezinbesteko harremana aztertuko dugula.

Landareen nutrizioaren azpi-prozesu hauek gehienak aldi berean ematen direnez, aurkezteko ordena aldagarria izan daiteke. Hala ere, ikasleen ulermena errazteko sustraietatik has dezakegu gure lana, xurgatzeetik alegia. Ibilbidea honokoa izan daiteke:

(Izerdi landugabea) XURGATZEA → GARRAIATZEA → ARNASTEIA eta FOTOSINTESIA EGITEA → (Izerdi landua) landarearen zelula guztietara GARRAIATZEA

Adierazi baita, fotosintesia DBHn ere ikasten jarraituko dutela, beraz, gure ikasleek orain jakin beharrekoak oso era sinplean azaldu behar direla. Fotosintesiak adibidez badu gau-fase bat ere baina oso ideia eta azalpen konplexuak dira hauek adin honetarako.

Irakurgaietan fotosintesiari buruzko informazio gehigarria ematen da. Batetik, fotosintesiaren garrantzia azpimarratzen da. Era honetako ideiak poliki-poliki barneratu behar dituzte gure ikasleek. Bestalde, klorofilarik ez duten landareei buruzko eta bitxikeria modura landare haragijaleei buruzko informazioa eranstean da.

### **31. Esperimentuak: Landareak eta argiaren eragina**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.*

Bi esperimentu hauen bidez zera ikustarazi nahi diegu;

- 1. esperimentuan, landarearen klorofila disolbatuko dugu alkoholean. Landare berdeek pigmentu hori dutela ikusiko dute. Gainera, aurreko orrialdeetan ikusi ahal izan dute zer garrantzi duen klorofilak landareen nutrizio-prozesuan. Esperientzia hau talde txikitan (3 lagun adibidez) burutzekoa litzateke.

- 2. esperimentuan landareak argi bila nola jotzen duen ikusi nahi dugu. Lehenago ere aipatua izan da “fototropismoa” edota landareek argi bila, argi aldera egiten duten desplazamendua edo joera. Argiaren beharra ere, nutrizioarekin erlaziona ezazue.

### 32. Landareen sailkapena

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Sailkapen horri lasai-lasai behatuko diogu eta ahal dugula gelara ekarriko ditugu (irteera eginda edo bestela) era guztietako landareak, euren zatiei (obuluak, hodiak...) behatuz sailkapena ondo interpretatu dezagun.

Bestalde zuhaitzen ezagutzan aurrera egin asmoz, zuhaitzetako hostoei dagokien gako dikotomikoa emango diegu ikasleei. Jarduera honen helburua taldean (binaka) gakoan erabilpenean lehen urratsak emateaz gain, gure inguruan ohikoenak diren zuhaitz eta zuhaixketara eta euren izenetara hurbilpena egitea litzateke.

Hasteko, gako dikotomikoa zer den adieraziko diegu. Horretarako lehenik *dikotomia* (gogoratzeko txantxa moduan “bikotomia” euskaraz argigarria izaten zaie ikasleei) hitzaren esanahia argituko dugu:

**dikotomia** iz. Bitan banatuta edo adartuta egotea, bereziki kontrako ezaugarriak dituzten edo elkar ukatzen duten bi zati edo multzotan.

Alegia, bietako bataren edo bestearen artean erabaki edo aukeratu beharra izango dutela gako hauek erabiltzerakoan.

Jarraian daude orrialdeetan, hainbat tresna dituzue zuhaitzen eta zuhaixken hostoen behaketatik abiatuta zein landareri dagokion asmatzeko. Lehenak hiru zati ditu:

1. Hostoen sailkapen ilustratua hainbat irizpideren arabera. Izendegi hau bera erabiltzen da gakoan
2. Adaburuaren eitea
3. Zuhaitzen eta zuhaixken gakoa eskema moduan aurkeztua

## Hostoen sailkapena

a) Zurtoinean kokatzeko era



BERTIZILATUAK



TXANDAKAKOAK



AURKAKOAK




BANAKAKOAK

b) Pezioloa izatea ala ez izatea



TXORTENDUNA



TXORTENGABEA

c) Bakunak ala konposatuak



BAKUNA



PINNAKONPOSATUA



PALMATIKONPOSATUA



HIRU HOSTODUNA


d) Hosto-ijelkiaren forma




ORRATZA



LANTZA



GEZIA



BIHOTZA



OBALOA



ESKUZABALA

e) Hosto-ijelkiaren ertza



KOSKAGABEA



HORZDUNA



ZERRADUNA



GINGILDUNA



ARRAILATUA




ZATITUA

f) Nerbiazioak



NERBIOAKARRA



PARALELINERBIOA




PENINERBIOA




PALMINERBIOA

## Adaburuaren eitea



## GAKO DIKOTOMIKOA



Iturria: Aitziber Sarobe



Bigarrenak bi zati ditu:

1. Hosten gakoa, zuhaitzek eta zuhaixkek hostoak dituzten garaian erabiltzeko
2. Neguko gakoa. Hosto galkorreko zuhaitzak, neguan identifikatu ahal izateko.

Gako honetan erabiltzen den hostoen izendatze modua ez da aurrekoetan erabiltzen den bera kasu guztietan, beraz ez itzazue bi dokumentuak nahasi. Ziurrenik erabilerrazena, bigarren hau izango da.

## ZUHAITZ ETA ZUHAIXKEN HOSTOEN GAKOA

- |  |  |
|--|--|
| 1. *Hostoak zabalak dira?<br>*Hostoak estuak dira?   | BAI → zoaz 6.puntura<br>BAI → zoaz 2. puntura          |
| 2. *Hostoek ezkata itxura dute?<br>*Hostoek ez dute ezkata itxurarik?                                      | BAI → <b>NEKOSTA da.</b><br>BAI → zoaz 3.puntura       |
| 3. *Hostoak multzoka ateratzen zaizkio?<br>*Hostoak bakarka ateratzen zaizkio?                             | BAI → <b>ALERTZEA da.</b><br>BAI → zoaz 4.puntura      |
| 4. *Hostoak gogorak dira?<br>*Hostoak bigunak al dira?   | BAI → <b>IZEI GORRIA da.</b><br>BAI → zoaz 5.puntura   |
| 5. *Hostoak plano bakar batetik zabaltzen dira?<br>*Hostoak adartxoaren inguru guztietatik zabaltzen dira? | BAI → <b>HAGINA da.</b><br>BAI → DOUGLAS IZEIA da.     |
| 6. *Hostoek ertza gingilduna dute?<br>*Hostoek ez dute ertz gingildunik?                                   | BAI → zoaz 7. puntura<br>BAI → zoaz 9. puntura         |
| 7. *Gingilak borobilduak al dira?<br>*Gingilak puntadunak al dira?   | BAI → <b>HARITZA da.</b><br>BAI → zoaz 8.puntura.      |
| 8. *Hostoak zorrotzak dira?<br>*Hostoak kamutsak dira?   | BAI → <b>GOROSTIA da.</b><br>BAI → IPAR HARITZA da.    |
| 9. *Hostoek ertza osoa dute?<br>*Hostoek ertza horzduna dute?  | BAI → <b>PAGOIA da.</b><br>BAI → IPAR HARITZA da.      |
| 10. *Hostoak luzatuak dira?<br>*Hostoak ez dira luzatuak?  | BAI → <b>GAZTAINONDOA da.</b><br>BAI → zoaz 11.puntura |
| 11. *Hostoen goialdea latza da?<br>*Hostoen goialdea leuna da?   | BAI → <b>URRITZA da.</b><br>BAI → URKIA da.            |

## NEGUKO GAKOA

Neguan zuhaitz asko historik gabe gelditzen dira. Garai honetan sailkapena egiteko beste ezaugarri batzuetan jarriko dugu arreta.

- |   |   |
|---|---|
| 1. *Hosto iraunkorrak ditu?<br>*Hosto galkorrek ditu?   | BAI → .zoaz 2.puntura<br>BAI → zoaz 6. puntura          |
| 2. *Hostoak zabalak dira?<br>*Hostoak estuak dira?  | BAI → <b>GOROSTIA da.</b><br>BAI → zoaz 3.puntura       |
| 3. *Hostoek ezkata itxura dute?<br>*Hostoek orratz itxura dute?   | BAI → <b>NEKOSTA da.</b><br>BAI → zoaz 4. puntura       |
| 4. *Hostoak gogorrek dira?<br>*Hostoak bigunak dira?  | BAI → <b>IZEI GORRIA da-</b><br>BAI → zoaz 5.puntura    |
| 5. *Hostoak plano bakar batetik zabaltzen dira?<br>*Hostoak adartxoaren inguru guztietatik<br>zabaltzen dira? | BAI → <b>HAGINA</b><br>BAI → <b>DOUGLAS IZEIA da.</b>   |
| 6. *Zuhaitzak itxura konikoa du?<br>*Zuhaitzak ez du itxura konikoa?  | BAI → <b>ALERTZEA da.</b><br>BAI → zoaz 7.puntura       |
| 7. *Enbor asko ditu?<br>*Enbor bakarra du?  | BAI → <b>URRITZA da.</b><br>BAI → zoaz 8.puntura        |
| 8. *Enbor azala zuria da?<br>*Enbor azala ez da zuria?  | BAI → <b>URKIA da.</b><br>BAI → zoaz 9. puntura         |
| 9. *Enbor azala zimurra da?<br>*Enbor azala leuna da?   | BAI → <b>HARITZA da.</b><br>BAI → zoaz 10.puntura       |
| 10. *Kimuak puntadunak dira?<br>*Kimuak punta-gabeak dira?  | BAI → <b>PAGOA da.</b><br>BAI → <b>IPAR HARITZA da.</b> |

### **33. Algak eta likenak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian*  
*Materiala: Irakurgaiak 5, 164. or.*

Liburuko 33. orrialdeko globoan dagoen azken galderari erantzuna eman asmoz alga eta likenei buruzko irakurgaia daukagu. Talde handian irakurriko dugun izenburuak dioten bezala, alga eta likenak ez dira errazak sailkatzen. Irakur dezatela informazioa bakarka nahiz binaka lehenik eta ondoren, talde handian ideia nagusiak plazaratu denon artean.

### **34. Landareak aztertzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.*

Irteera, hau da, landareen zuzeneko behaketa eta bilketa egin aurretik, gure lana zentratzen saiatuko gara. Horretarako, kanpo-lanean, landareei dagokienez, beharrezkoak izango ditugun baliabideak, behin kalean egonez gero egin beharrekoa eta zer-nolako landare motak aurki ditzakegun aurre-ikustea beharrezkoa izango da.

Iruditan ikus ditzakegun landareei banan-banan behatu, ezagutzen ote duten galdetu, loredunen edota lore-gabeen taldean sailkatzen dien beharazi eta ezagunen izen batzuk gogoratzeko gai ote diren zirikatu. Irteera egiterakoan hainbat landare bere izenez ezagutzeak, natura-liburuetan hauen inguruko informazio-bilatze lana erraztuko die.

Gogoratu irteerak beti ere hiru unetan garatu behar ditugula: irten aurretiko zehaztasun guztiak (eginbeharrak, baliabideak, jokabidea —baita ibilbideari dagokion bide-hezkuntza ere— taldekatzeak, ardurak...); irteera gauzatzea; eta azkenik irteera egin ondoren egin beharreko lanen zehaztapena, burutzea eta balorazio orokorra.

Orrialde horretan, baita ere, jasotako landarekin herbarioa nola presta daitekeen adierazten da.

### **35. Lorarik gabeko landareak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.*

Goroldioak eta iratzeak konparatu ahal izateko beheko informazioa, xehetasun guztiak kontuan hartuz, irakurri beharko dute banaka. Irakurketa oso arretatsua eskatuko diegu beraz, eta horretan laguntzeko, alboan papera eta arkatza edo boligrafoa dutela egin dezatela, apunteak hartzeko.

Jarraian egin beharreko esperimentuetarako, bai goroldioak eta bai iratzeak behar dituzue, eraman itzazue gelara, behatu ondoren ahozko azalpenetan esku artean erabil ditzaten eta antzekotasunak eta ezberdintasunak landarean ikus ditzaten.

Bestalde, irteera egitea pentsatzen duzuen lekuan goroldiorik eta iratzerik ez balego, bila ezazue hormaren edo antzeko espazioaren bat landare hauek dituen, loregabe hauek bere habitat naturalean beha ditzaten.

### **36. Landare lore-gabeen ugalketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.*

Laugarren mailen ikusi zuten landare lore-dunen ugalaratua lorea dela. Baina zer gertatzen da lorerik ez duten landareekin? Nola ugaltzen dira?

Iratzeak esku artean dituzuela hauen ugalketa-prozesuan parte hartzen duten atalak zuzenean behatzeko aukera izango duzue. Bestalde, udaberria dela eta, protaloak edo gutxienez fronde txikiak garatzen zuzenean ikusteko aukera ere izan dezakezue. Ziurrenik ahaztuta edukiko badute ere, saia zaitezte gogora ekartzen 4. mailan, 6. unitatean iratzeen ugalketa sexualaz ikasitakoa.

### **37. Esperimentua: goroldioak**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or.*

Talde txikitan, nahi baduzue lehen esperimentua talde batzuen ardurapean utzita eta bigarrena beste talde batzuen ardurapean, burutu ditzatela bi esperimentu hauek.

Lehen esperimentuan, goroldioen xehetasunei (espora-ontziak) lupaz behatzeaz eta marrazkiak egiteaz gain, goroldioak (leku hezeetan bizi diren landareak) eguzkitan eta urik gabe jartzean zer geratzen den behatuko dute.

Bigarren esperimentuan berriz, goroldiek eta euren errizoideek urarekin duten portaera aztertuko dugu. Azken frogan ura izan arren, batere argirik gabe zer gertatzen den ikusiko dugu.

### **38. Esperimentua: iratzeak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.*

Inguruko iratze mota desberdinak begi-bistaz eta lupaz aztertu eta marrazkia egin ondoren, iratzeen ugalketan parte hartzen duten soroak (espora-ontzien bilduma), espora-ontziak eta esporak aztertuko dituzte mikroskopioz.

Bukatzeko, iratzeen ugalketa-prozesuaren marrazkia (35. or.) beren koadernoan egingo dute ikasteko.

### **39. Hiztunak eta hizkuntzak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or.*

Euskaraz ari garenean erdal hitzak erabiltzeko dugun joerari egingo diogu so oraingoan. Zergatik dugu joera hori? Galdera hori erantzuten saiatuko gara talde handiko elkarrizketa batean. Ondoren, banaka, norberak erabiltzen dituen erdal hitzen zerrenda osatzeari ekingo diote, gero talde handian berriz ere, zerrenda bakarra bere euskarazko baliokideekin osatzeko.

- *Saiatuko al gara denon artean euskarazko hitzak erabiltzen? Bila ezazue konpromisoa.*

Orrialde horretako bigarren jardueran berriz, landare eta animaliak izendatzeko moduz jardungo dugu. Hizkuntza bakoitzean beren izena edota izenak (asuna, osina, ausina) izan ditzakete eta gainera, izen zientifikoa, unibertsala.

Guztien artean, informazio bilketa burutzen duten bitartean, une egokia izan daiteke, gure inguruko landare eta animalia ezagunenen izendegia osatzeko. Beheko fitxa eredu gisa erabil dezakete.

### **40. Irakurgaiak: Goroldio mutua**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 165. or.*

Irakur dezatela banaka, gozatuz, landare, animalia eta beste izaki guztiak mututu zireneko kondaira. Gero, beha iezaiozue talde handian Jose Maria Satrustegik testu hau idazterakoan erabili zuen hizkuntza poetikoari. Bultzatu ondoren bigarren irakurketa bat.

- *Animatuko al zarete, baliabide espresibo horiek erabiliz poesia bat idaztera?*

### **41. Landare lorehunak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.*

Goiko txarteltxoan dagoen *Mendian lahar artean* abesti ezaguna kantatuz has dezakezue orrialde honen lanketa.

Landare lorehun inguruko informazioan, landareen sailkapenean ikusitako kontzeptuak berreskuratuko ditugu eta lorehun inguruko informazio laburtua eta sailkapena bere azalpentxoarekin (obuluak agerian, obuluak obulutegian) koadernoan jaso. Ondoren, loreen zatiei helduko diegu liburuan proposatzen diren jarduerak eginez.

Lan ezazue ahoz polinizazioa. Horretarako arbelean lorearen marrazki handi samar batean oinarrituz.

Bukatzeko, ugalketa-ziklo osoa erreparasatu eta koadernoan bildu ikasi ahal izateko.

#### **42. Bizidun zelulanitzak: Animaliak (sailkapena eta ezaugarriak)**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian/Talde txikian/Binaka*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. eta 41. or.*

Lehenik eta behin sailkapenari so egin eta animalien ezaugarriak irakurri eta koadernoan bilduko ditugu.

Ondoren, jada 3.maila ikusi zuten sailkapenari helduko diogu. Orduan “Nor da nor” erako jolasa egiteko proposatu zitzaaien sailkapen honi bueltatxo batzuk emateko. Galdetu ea gogoratzen duten eta ea material osagarriarekin jolasean ibili ote ziren.

Oraingoan sailkapenari astindua emateko talde txikian edo binaka gako dikotomikoak erabiliko ditugu. Baina gakoa jarraituz, erantzun zuzena aurkitzea erraza denez, hura erabili aurretik aipatutako animalia (txandaka ikasle guztiek animalia ezberdinak proposa ditzakete) zein familiatakoa den asmatzen saiatuko dira. Gakoa erantzuna egiaztatzeko edo zuzentzeko erabiliko dugu. Oraingoan gakoa galdera moduan aurkeztuko diegu, sailkapen eskema badaukate eta.

Bana ezazue gakoa beraz, eta ekin diezaiotela lanari.

## ANIMALIEN GAKO DIKOTOMIKOA

- |                                    |     |  |
|------------------------------------|-----|--|
| 1. Bizkarrezurrik badu?            | Bai | → <b>Ornoduna</b> da, zoaz. 2. puntura |
|                                    | Ez  | → <b>Ornogabea</b> da, zoaz 8. puntura |
| 2. Azala ilez osatua du?           | Bai | → <b>Ugaztuna</b> da.                  |
|                                    | Ez  | → zoaz 3. puntura                      |
| 3. Azala lumez osatua du?          | Bai | → <b>Hegaztia</b> da.                  |
|                                    | Ez  | → zoaz 4. puntura                      |
| 4. Azala ezkatez osatua du?        | Bai | → zoaz 6. puntura                      |
|                                    | Ez  | → zoaz 5. puntura                      |
| 5. Azal gorria* du?                | Bai | → <b>Anfibioa</b> da                   |
| 6. Ezkatak soldatu gabe ditu?      | Bai | → <b>Arraina</b> da.                   |
|                                    | Ez  | → zoaz 7. puntura                      |
| 7. Ezkatak azalari soldatuak ditu? | Bai | → <b>Narrastia</b> da.                 |
| 8. Hankarik ba du?                 | Bai | → zoaz 9. puntura                      |
|                                    | Ez  | → zoaz 13. puntura                     |
| 9. Hiru hanka pare ditu?           | Bai | → <b>Intsektua</b> da                  |
|                                    | Ez  | → zoaz 10. puntura                     |
| 10. Lau hanka pare ditu?           | Bai | → <b>Araknidoa</b> da.                 |
|                                    | Ez  | → zoaz. 11. puntura                    |
| 11. Bost hanka pare ditu?          | Bai | → <b>Krustazoea</b> da.                |
|                                    | Ez  | → zoaz 12. puntura                     |
| 12. Hanka ugari ditu?              | Bai | → <b>Miriapodoa</b> da.                |
| 13. Maskorra du?                   | Bai | → <b>Moluskua</b> da                   |
|                                    | Ez  | → zoaz 14. puntura                     |
| 14. Garroak ditu?                  | Bai | → <b>Moluskua</b> da                   |
|                                    | Ez  | → zoaz 15. puntura                     |
| 15. Eraztunez osaturik dago?       | Bai | → <b>Anelidoa</b> da.                  |

\* Gorria hitzak ez du hemen kolorea adierazi nahi. Gogora ekar itzazu 5. mailako 4. unitatean "gorria" hitzaren esanahiak eta atera ondorioak!

#### **43. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 166. eta 167. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei, igarkizunak irakurri eta asmatzeari ekin ostean, animaliak, liburuan aurkeztu zaien animalien sailkapenean zein tokitan kokatuko lituzketen pentsatzeko. Jarduera bukatzean, talde handian elkarrizketa bidez berrikusiko dugu.

#### **44. Irakurri aurretik**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 42. or./Irakurgaiak 5, 168. orrialdetik 171.era*

Liburuko ariketak egin, bakarka lehenik. Ondoren, ahoz talde handian, amesgaiztoen eta bestelako ametsen inguruko elkarrizketa burutu, eta testuaren inguruko hipotesiak egin ditzatela ikasleek banaka.

Ondoren, talde handian beheko txartelean dagoen zita irakurriko dugu arretaz eta azpian duen hiztegi artikuluari egingo diogu so.

Esaldiari zentzu osoa emanez, hitz-joko polita egin du Mitxel Murua idazleak zurrunga eta korrokarekin. Hau da, printzipioz sinonimoak diren hitzak, korroka eta zurrunga, ez balira bezala azaltzen zaizkigu esaldi honetan, egileak zurrunga hitzari korrokaren lehen adiera eman baitio testuan eta korroka hitzari berriz, hiztegi artikuluko 3. adiera.

#### **45. Irakurri ondoren I**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 43. or.*

Testu osoa bakarka eta isilean, nahiz ozenean eta taldekide guztien aurrean irakurri ondoren, hainbat lan proposatzen dira:

- Ahozko elkarrizketa lehenik, Pello Telleriaren erabakiaren inguruko balorazioa eginez eta erantzuna arrazoituz.
- Koadernoan galderei erantzunez idatzi beharreko ipuinaren laburpen-testua.
- Ipuina informazio iturri bezala erabiltzeko aukeraren balorazioa.
- Eta azkenik, ahoz eta talde handian alegiaren inguruko informazioa irakurri (2. zikloan ere aritu ziren alegia eta ipuinaren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertzen) ondorengo galdeketaren ingurukoak.

#### **46. Paradisuko atean**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 172. or.*

Nemesio Etxanizen kanta dugu irakurgaietakoa. Paradisuan gertatu omen zen eta Adanek animalia bakoitzari izena eman ondoren banan-banan galdetu omen zien gogoratzen zutela ziurtatzeko. Alegiazko kanta ez bada ere, animaliak dira



protagonistak (Adanekin batera) eta hitza hartzen dute kanta honetan ere. Ikuspuntu honetatik kantaren inguruko jarduerak egin ostean, alegia eta kanta honen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ere azter ditzakezue.

Baina, argitu dezagun lehenik zer paradisuz ari den kantua eta Adanen figurak zer adierazten duen. Irakur eta abestu dezagun guztion artean ondoren.

Bukatzeko, haur batek (edo talde txiki batek) Adanen papera hartuko du eta beste haurrek (haur taldeek) animaliena (urdea, zezena...). Lehen ahapaldia guztiok batera abestuko dugu eta besteak elkarrizketa moduan. Gogoratu, leloa edo lehen ahapaldia beste guztiekin tartekatuz ere abestu behar dugula.

#### **47. Alegia: “Astoa eta txarria”**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 5, 173. or.*

Bertan dituzue istorio bera, alegia bera, kontatzeko bi testu. Lehena Bizkaieraz eta era narratiboan, bigarrena berriz, hitz neurtuan, bertso moduan. Azter itzazue testu biak arreta handiz.

- Zertan ikus daiteke lehena Bizkaiko euskalkian idatzita dagoela?
- Bigarrena zein euskalkitan dago idatzita? (batuaz)
- Zein neurritan dago idatzita bertsoa?
- Kantatuko al dugu? Zein doinu izan daiteke egokia?
- Entzun al duzue lehenago Felix Maria Samaniegoren izena? Zergatik da ezaguna? Nongotarra zen? Non dago Laguardia?
- Zein da alegia honen irakaspena?
- Zer pentsatzen duzue irakaspen honetaz?

#### **48. Irakurri ondoren II: Liburuak eta animaliak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 44. or*

Ikastolako liburutegiko literatura-saila aztertuko dute ikasleek, animaliek garrantzizko papera duten literatura-lanen bila.

#### **49. Bertsoz**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 44. or./DVDA/Irakurgaiak 5, 174. eta 175. or.*

Astoa eta txerriarekin bueltaka gabiltzan honetan, ikus eta entzun DVDA eta burutu liburuko jarduerak.

**Bertsolariak:** Martin Rezabal “Olaso” eta Luis Otamendi

**Gaia:** Zuek biok ukuiluan bizi zarete. Zu, Martin, txerria izango zara eta zu, Luis, astoa. Lotarako orduan, zein da zuen arteko elkarrizketa.

**Doinua:** Motibo bat nigana.

### **Martin 1**

Goizean egunero  
etxetikan irten  
buruko soka hori  
ezin duzu eten  
inoiz ere ez duzu  
nahi hainbeste jaten  
belar gozorik ere  
ez dizute ematen  
goizean arrantzarik  
ez duzu egiten.

### **Martin 2**

Zure bizimodua  
ez da hain gozoa  
nagusiak makilaz  
noiznahi eraso  
ukuiluan etzanda  
nik egun osoa  
artoakin bisitan  
amona gaixoa  
bizitza motza daukat  
baina eroso.

### **Luis 1**

Arrantza egiteko  
triste dut bihotza  
gaurko eguna ere  
ez da izan motza  
neke ugari eta  
janaria hotza  
nagusiak atzetik  
irrintzi zorrotza  
arrantzaren ordezkari  
sarri puzkar hotsa.

### **Luis 2**

Amonak zu gizentzen  
bere ahaleginak  
zuretzako janari  
goxo eta finak  
neke ugari eta  
edo hondakinak  
baina egun guztiak  
ez dira berdinak  
ate joka dituzu  
azken San Martinak.

*Bertsoz Blai 6. maila Lehen Hezkuntza,  
IKASTOLEN ELKARTEA*

“Erbia eta dortoka” alegian oinarritutako bertso sorta duzue Irakurgaiak 5 liburuan.

Ekar ezazue gogora lehenik alegia horretan kontaktzen dena eta irakaspena. Hitz egin ezazue taldean irakaspenaren inguruan, zerikusi handia baitauka iraunkortasunarekin. Orokortu ezazue iraunkortasunaren beharra bizitzaren alderdi guztietara eta batez ere bidera ezazue ikaskuntza aldera. Ondoren, bertsoak irakurri eta interpretatu azkenik guztion artean abesteko.

## **50. Bertsoan**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian  
Materiala: 10. lan-koaderno, 68. orrialdetik 70.era*

Kopla txikiak eta neurria handia landuko dituzte lan-koadernoan animalien arteko elkarrizketa aitzakia. Bakarkako lana bukatu ondoren taldean (txiki nahiz handi) elkar jarri egindakoa.

### **51. Animaliak ikertzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 45. or.*

Landareak ikertzeko irteera egin aurretik egin dugun prestakuntza lan berbera egingo dugu animaliekin ere.

Hasteko gure inguruan aurki ditzakegun hainbat animaliarene irudiak bilatu eta hauen izenak errepatatuko ditugu. Ondoren, terrarioak nola prestu eta irteerari begira idatzita dauden aholkuak irakurriko ditugu.

### **52. Terrarioak**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or.*

Irteeran bil ditzakegun animaliak ekarri aurretik, bizileku probisional (gero askatu egingo ditugu eta) egokia prestatzeari ekingo diogu. Liburuan dituzue zehaztuta argibideak, neurri eta izaera ezberdinetako animaliak ahalik eta erosoan egon daitezela. Ekin bada lanari!

### **53. Irteera prestatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or.*

Zuzeneko behaketa eta bilketa egin aurretiko azken jardura dugu hau. Irakurri liburuan azaltzen den aholku bakoitza eta horiek jarraitzeko gutzia prest ote duzuen egiaztatu.

Bestalde, gogora ekarri baita ere, kalean gabiltzanean nola ibili behar dugun, beste pertsonetikiko begirunea eta bide-hezkuntzaren arauak. Oinez joatekotan ere, ibilbidearen aurre-ikuskeraren mentala egin ezazue, bertan aurki ditzaketena zebra-bideak... gogora ekarriz, eta nondik zehar joan eta bestelakoak zehaztuz.

### **54. Proiektua gauzatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 48. eta 49. or.*

Txosten monografikoa osatzeko egin beharreko lanak eta hauei dagozkien prozedura batzuen berri dugu orrialde hauetan. Irakur ezazue arreta handiz talde handian. Gero talde txikietan, birpasa ditzatela bi orrialde horiek kontuan hartu beharrekoak nabarmenduz.

Nola nahi ere, 50. orrialdean lan monografikoan txertatu beharreko azalpen-testuari buruzko informazioa dago eta jarraian lan-koadernoan haren idazketa hobetzeko hainbat jardueraz osatutako sekuentzia luzea dugu.

## 55. Azalpen testuaren sekuentzia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or./Irakurgaiak 5, 176. orrialdetik 181.era/10. lan-koadernoaz 73. orrialdetik 80.era*

Azalpen-testu baten oinarritzko egiturari buruzko informazioa lehenik talde handian eta gero bakarka aztertu. Ondoren, Irakurgaietako testuen artean, informazio ematen den ala ez irizpidetzat hartuta, azalpenezkoak direnak aukeratu eta, euren azterketa egingo dute liburuko galderei jarraituz.

Euren informazioa nola antolatu eta osa dezaketen hurrengo ariketan aztertu eta lan-koadernoko sekuentziara joko dugu. Sekuentzia luzea denez, zati ezazue lana. Hau da, bakarka nahiz binaka atal bat garatu eta horren inguruko elkar jartzea egin ezazue, zuzenduaz eta irizpidea konpartituz.

Lan hauek burutzeko, lan-koadernoaz gain Irakurgaiak 5 liburua esku artean beharko dute.

Irakasleari lana errazteko asmoz hemen duzu hainbat jardueri dagozkien erantzunak.

Lan-koadernoaz, 74. orrialdeko testuak.

### **Kurriloaren habia**

Kurriloaren habia belarrez egindakoa eta nahiko handia izaten da. Hegazti honek lurralde hezeetan egiten du bere habia, lurrian, ezkutuan eta urez inguratutako tokietan. Horrela babestuago egoten da. Zingirak berdetzen eta sastrakak hostoz betetzen direnean izaten du habia egiteko garaia. Nekazaritzarako eta hiriak egiteko hezegune eta lurralde zingiratsuen gutxitzea dela eta, kurriloei laguntzeko, Alemanian habiak egiteko guneak egokitu dizkiete.

### **Kurriloaren mugimenduak**

Kurriloaren mugimenduak arinak eta dotoreak dira. Antzina-antzinatik gizakiak txundituta begiratu izan dio kurriloari hegan egiteko duen dotoreziagatik. Hegan egiterakoan, erraz airerutzen da hegoak indar handiz astinduz nahi duen garaiera hartu arte. Ondoren lepoa eta hankak luzatzen ditu eta zuzenean joaten da bere helburura. Bitxia da dantzarako duen gaitasuna ere: hegoak zabalduz, eta lepoa eta hankak luzatuz, salto handiak ematen ditu. Bere habi inguruan arriskuren bat sumatzen duenean, berriz, isil-isilik, hegan egin gabe aldentzen da.

Lan-koaderno, 78. orrialdea. Testua.

### **Hegaztiak**

Hegazti mota asko dago, baina guztiek dute gorputza lumaz estalita, ahoa moko forman eta, hegaztien ezaugarri nagusia dena, hegan egiteko hegoak. Hegazti batzuek trebetasun handia dute airean ehizatzen, esaterako, belatzak eta arranoak. Beste batzuek, berriz, ehunka kilometro egin ditzakete, hala nola, usoak eta zikoinak. Beste batzuek, aldiz, salto txikiak emateko soilik erabiltzen dituzte hegoak; hala egiten dute, adibidez, ahateek eta oiloek.

### **55. Artelanak: ekosistemak eta bizidunak arte aitzakia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 51. orrialdetik 54.era*

Natura aitzakia burututako hainbat arte-adierazpen ditugu orrialde hauetan.

*Ikasleekin garatzeko proposamenak:*

- *Eskulturak: imajinazioa martxan.*
- *Terrakotak: gu ere buztinaz.*
- *Marrazketa errealista: behaketa, oinarrizko formak, proportzioak, xehetasunak.*

### **56. Sintesia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 55. orrialdetik 58.era*

Orrialde hauek, ikasleei eta baita irakasleei ere, berrikusketa, sintesia eta ebaluazioa errazteko pentsatuak eta eginak izan dira. Beti bezala, unitatea bukatu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz erreparatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanaz.

### **57. Agurra**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 59. or.*

“Txanelametroaz” hitz egin eta gure pertsonaiek ere ikasturteari agurra nola ematen dioten ikusteko eta irakurtzeko parada dugu honokoa. Irakur ezazue talde handian bakoitzak dioena eta hitz egin ezazue horretaz.

## **58. Hemen edo han, gure txanelan!**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

5. maila bukatu dugu eta aukera ezin hobea dugu urte osoan bildutako argazkiei so egiteko. Txukuntzeko falta zaizkigunak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi eta gure albuma borobilduko dugu. Har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

Nola nahi ere, gero eta zabalagoa da argazki hauek, unitateei dagozkien abestiekin... euskarri informatikoan (aurkezpen-sortzaile moduan edo) biltzeko ohitura. Animatzen bazarete egin eta kopia bana atera ikasleentzat, oroigarri polita izango baita, eta gainera egindako lan guztiaren adierazle bikaina. Aurkezpen hau ziklokoa izan daiteke baita ere, beraz 6. mailan jarrai ezazue zuen lana argazki bidez etab. dokumentatzen.

*Irakasle, ederki irabazitako oporrak ondo pasa eta deskantsatu!*

*Txanelakideak*

# Musikako lan-koaderno

## SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

### 6.1 Harmonia musikan

*Lan egiteko era: Talde handian*

Talde-lanean ari garenean, erraza zaigu hotsak elkartzea. Hots horiek aldi berean eta era egokian elkartzen baditugu, harmonia sortzen ari gara.

Adibide bat bilatzen ibili, eta plater konbinatuarena aukeratu dugu. Zein goxoa den, nahiz eta janari kontuetan adostasunera iristea beti ezinezkoa izan, plater eder batean oilasko izterra, patata frijituak eta arrautza frijitu bat dastatzea. Hiru jaki horiek plater harmoniatsu bat osatzen dutela esan genezake.

Harmoniaren sentiera dastatu asmoz, musika-tresna melodiko bat hartuko dugu esku artean, perkusiozkoekin ezinezkoa izango baitzaigu altuera ezberdinetako hotsak sortzea. Eskuragarriena txirula dugu. Ikasle taldea hirutan zatituko dugu: A, B eta C. A taldekoek “DO” joko dute. Jarraian, B taldekoek “MI” eta, azkenik, C taldekoek “SOL”.

Nota bakoitza bakarka jo dugu eta ondo atera da. Orain, hiru nota horiek, talde bakoitzak berea eta irakaslearen agindura, une berean jo beharko dira, akorde bat osatuz (DO-MI-SOL).

Beste adibide batzuk: SOL-SI-RE / MI-SOL-SI / FA-LA-DO

Beti ere prozedura berari jarraitu: lehenik talde bakoitzak suertatu zaion nota, berak bakarrik, eta gero hiru taldeek batera bakoitzari dagokion nota. Horrela sentitu ahal izango dute hiru notek sortzen duten AKORDEA.

### 6.2 Harmonian al daude?

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Harmoniaren inguruan jarraitzen dugu. Sei musika-pasarte entzungo ditugu. Batzuetan, melodia soilik nabarituko dugu, hau da, hots-segida bat nabarituko dugu. Beste batzuetan, aldiz, harmonia sentituko dugu. Musika-pasarte bakoitza entzun ostean, harmonia dagoela iruditu bazaie, “BAI” idatziko dute zenbakiaren ondoko laukitxoan. Harmoniarik ez dagoela uste badute, berriz, hau da, melodia bakarrik dagoela iruditzen bazaie, “EZ” idatziko dute.

Hauek dira erantzunak:

1. “BAI”. Piano-jotzaileak, bi eskuetako hatzak erabiliz, nota multzoak jo ditu aldi berean.
2. “EZ”. Oraingoan, piano-jotzaileak notak banan-banan jo ditu.
3. “EZ”. Zeharkako txirulaz jotako melodia bat entzun dugu.
4. “BAI”. Txirula bat baino gehiago entzun ditugu aldi berean.
5. “EZ”. Esku-soinuaz baliatuz jotako abesti zati bat entzun dugu.
6. “BAI”. Soinu-jotzaileak aldi berean bi hots edo gehiago elkartu ditu, harmonia sortuz.

Behaldez beste lantxo bat egin beharko dute ikasleek. Lau marrazkitan hainbat pertsonaia kokatu ditugu. Multzo bakoitzeko elementuak harmonian dauden ala ez erabaki beharko dute.

Hauek dira erantzunak:

1. “EZ”. Hiru soldaduek ez dituzte arma berdinak sorbalda gainean.
2. “BAI”. Batzuek txistua jotzen duten bitartean besteek dantza egiten dute.
3. “EZ”. Lasterketa honetako partaideek ez dute esfortzu berdina egiten.
4. “BAI”. Biolin, biolontxelo eta piano-jotzaileek talde bikaina osatzen dute.

Har dezagun berriz ere plater konbinatuen adibidea. Zenbait jaki, banaka hartuta, gustagarriak izan daitezke, baina desegokiak elkartuz gero... Imajina dezagun beste plater handi batean patata-tortilla zati bat, txokolatezko izozkia eta babarrun gorriak elkartzen ditugula. Banan-banan hartuta, primerako jakiak dira, baina elkartuta jarririk xarma guztia galtzen dute, plater harmoniatsu bat ez dutela osatzen esan genezake. Baina lasai, norbait, konbinaketa hori gustukoa duela esanez etorriko zaigu.

Musikan ere antzeko zerbait gertatu ohi da. Notekin konbinazio asko egin daitezke. Eta norbaitentzat inolako harmoniarik ez duen konbinazioa beste batentzat une jakin batean nola-halako sentimendua adierazteko baliozkoa izan daiteke edo efektu gisa erakargarria iruditu.

Sukaldaritzarekin jarraituz, nork pentsa zezakeen oliba-oliozko edo piper gorritzko izozkiek harrera ona izango zutenik. Janariekin bezala, hotsekin ere esperimentatu egiten da. Hor dugu, adibide gisa, gaur abangoardiako musika deritzana. Zenbait jenderentzat oso erakargarria da, eta beste batzuentzat jasanezina. Ez legoke gaizki mota horretako musika seriala edo aleatorioko entzunaldiren bat ikasleei aurkeztea. Ea zer dioten.

Gure aldetik, esperimentu bat egingo dugu, eta ez zapore berri bateko izozkia lortu asmoz. Aurreko batean bezala, hiru taldetan banatuko ditugu ikasleak. Oraingoan ere talde bakoitzari nota bat jotzeko eskatuko diogu: banaka lehenik eta aldi berean ondoren.

Ikasleek erabakiko dute akorde edo nota multzo horiek harmoniatsuak zaizkien ala pilaketa desatseginak egin zaizkien.

### **6.3 Egia ala gezurra?**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Galdeketa honen bidez errepasso txiki bat egitea proposatzen dugu. Zazpi esaldiak irakurri, eta egia ala gezurra esaten den erabaki beharko dute ikasleek. Egia eta gezurrak txandakatuz jarri ditugu, hala nola, esaldi bakoitiek egia biribila diote eta bikoitiek, berriz, gezurra.

Beheko ariketan, errepasso modura, ezkerraldeko biribilean dauden elementuen izenak eskuinaldean idatziko dituzte.

### **6.4 Txirula jotzen ikasten**

*Lan egiteko era: Talde handian*

**GOAZEN, BAI, ETXERA!**

Kontuan hartu beharreko zenbait ezaugarri agertzen zaizkigu partituran. Azter ditzagun.

- DC eta FINE
- FINE kokatua dagoen konpasa
- Anakrusa
- Kortxeaerdiak
- Kortxeak (bakarka eta binaka)
- Punttua
- FA sostenitua

Abestia leloarekin hasten da, eta, ondoren, bertsoa kantatzen da, berriz ere leloari ekiteko. Abestiak sei bertso ditu, nahiz eta bakarra grabatu dugun CDan.

Ohiko prozedurari jarraituko diogu.



## **6.5 / 6.6 Musikarien txokoa**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka*

### **GREZIAKO POETEN ZITARA**

Musika-tresna hau egiteko behar den materiala ikusita, agian, oso zaila dela pentsatuko duzue, baina ez da hala. Hori bai, kontuz ibiltzea komeni da.

Saio bat baino gehiago beharko dituzue, baina merezi duela iruditzen zaigu. Lan-koadernoan adierazten dira jarraitu beharreko urrats guztiak. Zorte on!

## **6.7 Txirula jotzen ikasten**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

### **MIEL MARI**

Kantatzeko eta txirulaz jotzeko beste kanon bat duzue hau. Hiru taldetan jotzeko prestatua dago, eta ohiko prozedurari jarraituko diogu. Gogoratu 5.8 fitxarako aipatzen genuena.

Txirula hartzean, ez gara bat-batean kanona egiten hasiko. Aurretik, melodia bere osotasunean landuko dugu. Hiru taldeak egitea azken urratsa izango da. Zeuek erabakiko duzue taldea noiz dagoen prest kanonari ekiteko. Gogoratu kanona ongi ateratzeko jarraitu beharreko prozedura:

- Guztiek ikasi melodia hasieratik bukaera arte.
- Hiru talde osatu.
- Talde bakoitzak jo dezala kanta osoa.
- “Tuti” kanta osoa.
- Hasi 1 taldea.
- Hasi 2 taldea, hasieratik eta 1. taldea 2. pentagramara iristean.
- Hasi 3 taldea, hasieratik eta 1. taldea 3. pentagramara iristean.
- Bizpahiru aldiz jarraian egindakoan, “Tuti” eginez edo taldeka amaitu.

## **6.8 Jardun eta jardun**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Hitzak neurtuko ditu. Taupada = Silaba. Orrialde honetan agertzen den ariketarekin hasi aurretik, beste bat egingo dugu gelan. Ikasleen izenak neurtuko ditugu eta multzotan sailkatuko. Honatx, hemen, eskola bateko gela jakin batean egindako sailkapena:

“A” multzoan, taupada bateko izenak sartu ditugu: Jon eta Ur.

“B” multzoan, bi taupadakoak: Ane, Aitor, Leire, Erik, Gorka, Jone eta Maddi.

“C” taldean, hirukoak: Arene, Nerea, Iñigo, Endika, Amalur, Irati eta Rikardo.

Eta azkenik, bakarra gelditu zaigu “D” talderako: Agurtzane.

Horrelako jolas gehiago ere egin daitezke: herrien, ibaien edo mendien izenak sailkatuz edo gelan ditugun gauzak neurtu eta ordenatuz.

Horrela, fitxa honetako ariketa arazorik gabe egiteko prest egongo gara. Biko, hiruko eta lau taupadako hitzak hainbat multzotan jarri ondoren, kasu honetan erritmo-marretan, zentzuzko esaldiak osatzen saiatuko gara. Azkeneko konpasa egina eman dugu. Zelula erritmiko bakoitzaren azpian silaba bat idatziko dute ikasleek.

1. Biko neurria: Kaixo Ane zaude **lasai**.
2. Hiruko neurria: Etorri mesedez etxean **nago ni**.
3. Lauko neurria: Iruñeko “San Fermingo” zezenketak noiz dira?

Bigarren lantxoan hutsuneak bete behar dira:

1. Beltz batek **BI** kortxeen balioa du.
2. Lau taupadako iraupena duen zelularen izena **BIRIBILA** da.
3. Hiruko neurriko konpas bat osatzeko **SEI** kortxea behar dira.
4. Zuri batek **BI** taupadako iraupena du.

Eta azkenik, oraingoan ere, hutsuneak bete beharko dituzte ikasleek, eta isiluneak ekarri beharko dituzte gogora.

Noten zutabeen, biribila, zuria, beltza eta kortxearen irudiak marraztu behar dira. Bigarren zutabeen, bakoitzaren iraupena edo taupaden kopurua idatziko dute, eta hirugarren zutabeen, bakoitzari dagokion isilunearen ikurra.

Garai hau, biribilaren isiltasunari dagokion ikurra zein den erakusteko balia daiteke. Zuriaren isilunearen oso antzekoa da, baina laukizuzen txikitxo hori pentagramako erdiko marraren gainean jarri ordez azpialdean jarriko dugu, sagu zahar baten antzera zintzilik.

## 6.9 Txirula jotzen ikasten

*Lan egiteko era: Talde handian*

TRISTE BIZI NAIZ ETA (Bilintx)

Aski ezaguna den abestia aukeratu dugu lan-koaderno honi, txirularako partiturei dagokionez, amaiera emateko.

Ezertan hasi aurretik partituraren azterketa xume bat egingo dugu:

- Lehenengo bi pentagramak denok batera lantzeko eta jotzeko dira.
- Azkeneko biak, berriz, bi ahotsetan edo taldetan zatitu ditugu.

Hasieran, zerbait kostatuko da jarraipen zuzen bat egitea, baina denborarekin eta praktikarekin zailtasun guztiak gaindituko ditugu.

Taldeak egiteko garaian, kontuan izan “A” taldekoen partiturak nota agudoagoak dituela, eta, ondorioz, “B” taldekoarena baino gehiago entzungo dela. Horregatik, komeniko da talde bakoitzeko partaideen kopurua orekatzea.

Gogoratu ikasle guztiek ikasi behar dutela bi ahotsei dagokien partitura, eta gero egingo ditugu bi taldeak, bi ahotsetan txirula jotzeko.

## 6.10 Letra-zopa

*Lan egiteko era: Bakarka*

Ez du azalpenik behar fitxa honek. Errepaso txiki bat egiteko helburua besterik ez du jolasak.

Erantzunak idatzi eta letra-zopan aurkitzea izango da azken orri honetako zeregina.

Hona hemen erantzunak: 1. Biribila; 2. Sostenitua; 3. Zazpi; 4. Fine; 5. Zortzi; 6. Lotura; 7. Bost; 8. Bederatzi

**Lan-koadernotik aparteko kanta: Zein poliki**

*Lan egiteko era: Talde handian  
Materiala: CDa, jarduerak, 36. pista*

A  
Zein poliki, zein apainki,  
xuri-xuri Urraki.  
Zein alaiki, zein apainki,  
dantzara dator Urki.

B  
Ai, ai, ai! Ai, ai, ai!  
Dantzara dator Urki.  
Ai, ai, ai! Ai, ai, ai!  
Alai eta apainki

Kantatuz gozatzeko eta dantza egiteko beste abesti bat da hau.

**JARRERA:**

Ikasleak binaka, elkarri gerritik helduta eta guztien artean biribil bat osatuz.

**ERRITMOA ETA MUGIMENDUA:**

A  
□□□□□□□□□□□□□□□□

Aurreraka ibilian, konpas bakoitzean, bat, bi, trostan, mugituz.

B  
Bikote-laguna askatu eta biak elkarri begira  
□□ . □ . □□ . □ . □□ . □□  
□□ . □ Belaun-gainak kolpatuz.  
□□ . □ Txaloka.  
□□ . □□ Elkarri besotik heldu eta jiraka.

**Lan-koadernotik aparteko kanta: Xarmanta**

*Lan egiteko era: Talde handian  
Materiala: CDa, jarduerak, 37. pista*

Neskatil(a) xarmanta,  
diron-dindan-diron kanta.  
Neskatil(a) xarmanta  
diron-dindan galanta.

Xarmanta,  
diron-dindan kanta.  
Xarmanta, dindan galanta.

Ohiko prozedurari jarraituz, bi taldetan kantatzeko kanona.